

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2026ko otsaila

Aurkibidea

1. EAEko hazkundera

2. Lan merkatua

3. Inflazioa

4. Enpresarien konfiantza

5. Inguruneko hazkundera

6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,4 hazi zen urteko azken hiruhilekoan

Urteko batez besteko hazkundera %2,3koa izan da.

2. Enplegu tasa %71,6 izan zen laugarren hiruhilekoan

Langabezia tasa %6,3ra murriztu da.

3. Inflazioa %2,9ra jaitsi da abenduan

Azpiko inflazioa hiru hamarren jaitsi zen, %2,4raino, zerbitzuen moderazioari esker

4. Euskadiko enpresen konfiantzak maila altuetan jarraitzen du 2026aren hasieran

Hasi berri den hiruhilekoari buruzko aurreikuspenak moteldu dira. Hala eta guztiz ere, eremu positiboan jarraitzen dute

5. Munduko ekonomiak ziurgabetasunak markatutako 2025ean eutsi zion

Ekonomia nagusiek analistek aurreikusitakoa baino hobeto itxi zuten urtea.

6. NDFk hazkunde globalaren aurreikuspena igo du 2026rako, ziurgabetasuna gorabehera

AEBetarako eta eurogunerako hazkundeak 2026rako gorantz berrikusi ditu



EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


EAEko ekonomia %2,4 hazi zen urteko azken hiruhilekoan

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Urte arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA

%2,4



Eustatek zabaldutako hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenak adierazten du euskal ekonomiak hazkunde erritmo sendoari eutsi ziola 2025ean, baina erritmo hori ez zen 2024an bezain bizia izan, eta ekitaldia aurreko urtearen aldean BPGaren % 2,3ko hazkundearekin itxi zuen. Urteko aurrerapen hori, barne jardueraren bilakaera positiboan oinarrituta, dinamismo txikiagoko testuinguru batean gertatu da hainbat sektoretan, bereziki lehen sektorean eta indus-

trian, eta horren ekarpena moteldu egin da 2024an erregistratutako tasekin alderatuta.


2025eko laugarren hiruhilekoari dagokionez, EAEko BPGaren bilakaera apur bat areagotu zen, urte arteko %2,4ko hazkundearekin eta hiruhilekoko %0,5eko aurrerapenarekin, Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenak hamarren batez gaindituz.

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA

%0,5




ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA

%1,4



Lan merkatuan, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, %1,4 hazi zen urteko batez bestekoan, hau da, 14.000 enplegu inguru sortu ziren. Urteko hazkunde horrek lan merkatua ekonomiaren bilakaera orokorra-rekin bat datorren ibilbide positiboan kokatzen du.


Urteko azken hiruhilekoan, enpleguak %0,4 egin zuen gora aurreko aldiaren aldean, eta %1,4ko urte arteko hazkundera errepikatu zuen, ekitaldi osoan lanpostuak sortzeko ikusitako joera sendotuz. Horrela, aurreko hiruhilekoan milioi bat lanposturen mugan kokatu ondoren, azkenean gainditu egin da kopuru hori urteko azken hiruhilekoan.

ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA

%0,4



Iturria: Eustat.

Enplegu tasa %71,6 izan zen laugarren hiruhilekoan


ENPLEGU TASA. 16-64 URTE

BITARTEKOA.

Ehunekoa

4. HIRUHILEKOA

%71,6




Eustatek argitaratutako estatistika informazioak erakusten duenez, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren okupazio tasak hobera egiten jarraitu zuen azken ekitaldian. Urteko azken hiru hiruhilekoetan, adierazle hori %71,0tik gora mantendu zen, eta bigarren zein laugarren hiruhilekoan %72,0tik oso gertu egon zen. Bilakaera positibo horren ondorioz, urteko batez bestekoa %71,4koa izan zen, 2024an erregistratutakoaren (%71,0) gainetik, azken urteetako mailarik altuena ezarriz. Bilakaera sexuaren arabera aztertzean ikusten da joerak ez zirela homogeneoak izan.

Alde batetik, emakumeek hobekuntza nabarmena izan zuten, urteko batez besteko okupazio tasak gora egin baitzuen 2024ko %67,9tik azken urteko %68,9ra. Bestalde, gizonen artean beherakada neurritsua izan zen, %74,1etik %73,8ra. Horren ondorioz, bi taldeen arteko arrakala puntu bat eta hiru hamarren murriztu da eta 4,9 puntukoa da orain. Datuek enpleguaren hobekuntza orokorra baieztatzeaz gain, emakumeek Euskadiko lan-merkatuan duten partaidetza handiagoa ere azpimarratzen dute.

ENPLEGU TASA 16-64 BITARTEKOA.


EMAKUMEAK

Ehunekoa



ENPLEGU TASA 16-64 BITARTEKOA.


GIZONAK



Langabezia tasari dagokionez, aldagai hori % 6,3ean mantendu zen laugarren hiruhilekoan, 2024ko hiruhileko bereko datua baino zazpi hamarren beherago. Tasa jaitsi egin da, bai gizonen, bai emakumeen artean. Laugarren hiruhilekoan, bailoak %6,0 eta %6,6 izan ziren, eta 2024ko aldi berean, berriz, %6,4 eta %7,7. Gainera, nazionalitate espainiarra duten pertsonen langabezia-tasak %6,0 inguruan jarraitzen du, eta atzerritarrarenak, berriz, nabarmen jaisten jarraitzen du. Kolektibo hori 2022an %22 inguruko tasetatik iazko azken hiruhilekoan %11 inguruko mailetara igaro da.


LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoa




LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoa




LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoa




LANGABEZIA TASA. ESPAINIARRAK

Ehunekoa



LANGABEZIA TASA. ATZERITARRAK

Ehunekoa



Iturria: Eustat.




Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila

INFLAZIOA

Inflazioa %2,9ra jaitsi da abenduan

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Abenduan, urte arteko KPIa %2,9 hazi zen, aurreko hilean baino hiru hamarren gutxiago. Prestatutako elikagaien garestitzea gorabehera, azpiko inflazioa hiru hamarren jaitsi zen, %2,4raino, zerbitzuen moderazioari esker (%3,4). Hondar-inflazioa %5,2ra jaitsi zen, puntu bat gutxiago, energia eta landu gabeko elikagaiak azaroan baino gutxiago garestitu baitziren.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2024	2025	2025eko abendua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,1	3,0	2,9	2,9
Azpiko inflazioa (%84,6)	3,2	2,6	2,4	2,1
- Elikagai landuak (%15,4)	4,6	2,1	2,6	0,4
- Industria ondasunak (%20,2)	1,2	0,9	-0,3	0,0
- Zerbitzuak (%49,0)	3,5	3,4	3,4	1,7
Hondar inflazioa (%15,4)	2,6	5,2	5,2	0,8
- Landu gabeko janariak (%6,5)	4,0	6,8	6,8	0,4
- Energia (%8,9)	1,0	4,1	4,1	0,4


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak zertxobait bizkortu ziren berriro (%3,9), freskoek eta olioek bultzatuta, horrela igoeradun hiru hilabete kateatu dituzte. Alkoholdun edariek eta tabakoak ere gora egin zuten(%3,5) inflazioari aurreko hilabeteetan baino ekarpen handiagoa eginenez. Etxebizitza eta horniduren taldeak igoera txikia izan zuen, %5,3raino. Inflazioaren eusteari lagundu dioten taldeen artean, jantziak eta oinetakoak nabarmendu ziren; izan ere, jaitsiera -%1,7raino handitu zen merkealdi aurreratuaren kanpaina dela eta. Aisia eta kultura eremu

ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



negatibora itzuli zen (-%0,3), azaroko igoera txikiaren ondoren, pakete turistikoen eta aisi-aldiko zenbait zerbitzuren merkatzeagatik. Garraioaren hazkunde erritmoa %2,0ra jaitsi zen, erregaien garestitze txikiagoagatik eta deskontuen oinarri efektua desagertu ondoren aireko eta trenbideko prezioen normalizazioagatik. Jatetxeek eta hotelek %4,6ko gorakada izan zuten, eta oraindik ere dinamismo handiena duten taldeen artean daude, zerbitzuen sendotasunari esker.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2025eko abendua

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,9	2,9	1,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,9	3,0	2,5
Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,5	4,4	2,7
Jantziak eta oinetakoak	-1,7	0,2	0,3
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	5,3	5,7	1,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,1	0,7	0,2
Osasuna	2,2	2,3	2,3
Garraioa	2,0	1,8	1,4
Komunikazioak	1,6	1,5	-0,9
Aisia eta kultura	-0,3	0,5	1,2
Hezkuntza	2,3	2,6	3,6
Jatetxeak eta hotelak	4,6	4,6	3,6
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,0	3,4	3,7

Iturria: INE eta Eurostat

ENPRESARIEN KONFIANTZA

Euskadiko enpresen konfiantzak maila altuetan jarraitzen du 2026aren hasieran


INEk enpresen konfiantzari buruzko inkestaren emaitzak argitaratu ditu, eta EAEko enpresen datuak oso positiboak dira. Hain zuzen ere, konfiantza indize sintetikoa 137,7 puntutan dago 2026ko lehen hiruhilekoan, hau da, apur bat jaitsi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, baina adierazlea oso maila altuetan eta serie historikoaren maximoetatik hurbil mantentzen du, enpresen baikortasun maila handia islatuz. Itxita dagoen 2025eko laugarren hiruhilekoaren

egoerari buruzko balorazioak aldekoak dira oraindik. Erantzunen saldoa 12,9 puntukoa da, aurreko hiruhilekoko erregistroa hobetuz (12,4), eta horrek jardueraren azken aldiko bilakaerari buruzko pertzepzio positiboa adierazten du. Bestalde, bigarren hiruhilekorako itxaropenak moteldu egin dira modu nabarmenagoan (10,9), nahiz eta eremu positiboan jarraitzen duten, ziurgabetasun ekonomiko handiak markatutako testuinguru batean.


ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. EUSKADI

1. HIRUHILEKOA


137,7



AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. ESPAINIA


1. HIRUHILEKOA
137,0




Estatuan, oro har, INEren inkestaren emaitzek aldeko tonua erakusten dute. Indize sintetikoak 137,0ko balioa izan du 2026ko lehen hiruhilekorean, azken hiruhilekoetako erregistroetatik oso hurbil eta azkenaldiko maximoa baino apur bat beherago. Horrek dinamika egonkorra erakusten du enpresen erantzunetan. Amaitutako hi-

ruhilekoari dagokionez, saldoa 10,9koa da; emaitza positiboa da argi eta garbi, baina urtebete lehenago izandako balio aparta baino txikiagoa. Aldiz, uneko hiruhilekorako itxaropenek moderazio handiagoa erakusten dute, 4,5eko saldoarekin, positiboa izan arren serieko balio altuenetatik urruntzen dena.

AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



Iturria: INE.

INGURUNeko HAZKUNDEA


Munduko ekonomiak ziurgabetasunak markatutako 2025ean eutsi zion

TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPGA 2025

%5,0



2025. urtea eraldatzen ari zen nazioarteko eszenatoki batek markatu zuen, AEBetako merkatura sartzeko oztopo handiagoekin, merkataritza fluxuen aldaketekin eta adimen artifizialaren aurrerapen bizkorrekin. Horrez gain, tentsio fiskalak izan ziren AEBetako eta Frantziako ekonomietan, eta ziurgabetasun geopolitiko eta komertzialek maila altuetan eutsi zioten lurrunkortasunari. Hala ere, jarduera globala 2024koaren ia erritmo berean hazi zen (%3,1 2025erako, 2024ko %3,3ren aldean), eta ekonomia nagusiek analistek aurreikusitakoa baino hobeto itxi zuten urtea.


Txinan, ekonomia %5 inguru hazi zen berriro, 2024an bezala, Gobernuaren helburuaren ildotik, NDFren eta Munduko Bankuaren aurreikuspenak apur bat gaindituz. Hala ere, aurreko urtean ez bezala, hiruhilekoko hazkundeek beharrezko joera argia erakutsi zuten higiezinaren krisiak, babes fiskal txikiagoak eta barne eskariaren ahuleziak markatutako testuinguru batean. Faktore horiek jarduera oztopatzen jarraitzen dute, eta azaltzen dute 2026rako aurreikuspenek beste dezelerazio bat ekarriko dutela.

EBKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

EBKO BPGA 2025


%1,6



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023 2024 2025

EUROGUNEKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa




2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023 2024 2025

Europar Batasuna %1,6 hazi zen eta euroguneak %1,5. Ekonomia handien artean, Espainia nabarmendu zen berriro ere %2,8ko hazkundearekin, barne eskari sendoak eta lan merkatu erresistenteak eutsita. Frantzia eta Italia %0,7 hazi ziren, jarduera motelagoa erakutsita eta, Frantziaren kasuan, ziurgabetasun politikoak eta aurrekontuek markatuta. Alemaniak, azkenik, %0,2 baino ez zuen gora egin, datu ahula gainerako bazkideen aldean, baina garrantzitsua, bi urtez jarraian uzkuertzen aritu ondoren hazkundera itzultzea suposatzen baitu. Hobekuntza oraindik hauskorra da, industria ahultasunaren eta merkataritza tentsioengatik, baina 2026an dinamismo handiagoa espero da, azpiegiturretan eta defentsan inbertitzeko aurreikusitako bultzada handiari esker.

ALEMANIAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023 2024 2025

ESPAINIAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023 2024 2025

FRANTZIAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023 2024 2025

ITALIAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023 2024 2025

Iturria: ELGA, Eurostat eta INE.




Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila

NDF-REN AURREIKUSPENAK

NDFk hazkunde globalaren aurreikuspena igo du 2026rako, ziurgabetasuna gorabehera

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




NDFren arabera, munduko ekonomiak hazkunde egonkorra izango du datozen urteetan, jarduera bultzatzen eta geldiarazten duten faktore kontrajarriak egon arren. Erakundeak aurreikusten du BPG globala %3,3 handituko dela 2026an eta %3,2 2027an. Zifra horiek ia bat datoz 2025ean erregistratutakoekin, teknologia berrietan inbertitzeko bultzadari eta finantza baldintza onuragarriei esker, ziurgabetasun globalaren eta muga-zergen politiken aldaketen ondorio kaltegarrien aurrean.

NDFREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2025	2026	2027	2026	2027
Munduko ekonomia	3,3	3,3	3,2	0,2	0,0
Ekonomia aurreratuak	1,7	1,8	1,7	0,2	0,0
AEB	2,1	2,4	2,0	0,3	-0,1
Eurogunea	1,4	1,3	1,4	0,1	0,0
Alemania	0,2	1,1	1,5	0,2	0,0
Frantzia	0,8	1,0	1,2	0,1	0,0
Italia	0,5	0,7	0,7	-0,1	0,1
Espainia	2,9	2,3	1,9	0,3	0,2
Erresuma Batua	1,4	1,3	1,5	0,0	0,0
Japonia	1,1	0,7	0,6	0,1	0,0
Garatzen ari diren herrialdeak	4,4	4,2	4,1	0,2	-0,1
Txina	5,0	4,5	4,0	0,3	-0,2
India	7,3	6,4	6,4	0,2	0,0
Errusia	0,6	0,8	1,0	-0,2	-0,1
Brasil	2,5	1,6	2,3	-0,3	0,1


AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Aldi berean, inflazio globalak moteltzen jarraituko du, 2026an %3,8ra eta 2027an %3,4ra jaitsiz, baina doikuntzaren abiadura aldatu egingo da ekonomien artean; Estatu Batuetan, adibidez, inflazio helbururako itzulera mailakatuagoa izango da beste eremu ekonomiko handietan baino, muga-zergen eragin geroratuaren ondorioz.

NDFk ohartarazi duenez, ekonomia globalak erresistentzia erakusten duen arren, arrisku handiak daude oraindik, sektore gutxiren mendekotasunetik eratorriak, bereziki teknologikoak, finantza zuzenketen aukeratik eta tentsio komertzial edo geopolitikoen berragerpenetik. Gainera, egiturazko faktoreek, hala nola zorpetze handiak, zahartze demografikoak eta produktibitate baxuak hazkunde potentziala mugatzen dute.

TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2024		2025		
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,5	2,3	2,0	2,1	2,2	2,3	2,4
Barneko azken kontsumoa	2,8	—	2,4	2,4	2,3	2,7	—
Familien kontsumoa	2,5	—	2,2	2,6	2,9	2,8	—
Administrazioaren kontsumoa	3,5	—	3,1	1,9	0,2	2,2	—
Kapital eraketa gordina	2,7	—	2,2	2,3	3,5	4,9	—
Barne eskaria	2,8	—	2,4	2,4	2,6	3,2	—
Esportazioak	0,1	—	0,6	2,0	0,8	-1,8	—
Inportazioak	0,4	—	1,1	2,4	1,4	-0,6	—
Lehen arloa	4,3	—	3,4	0,6	-0,4	-1,5	—
Industria eta energia	2,0	—	0,7	0,4	0,1	0,2	—
Eraikuntza	2,0	—	1,3	1,7	3,1	5,0	—
Zerbitzuak	2,9	—	2,5	2,7	2,8	2,9	—
Balio erantsi gordina	2,6	—	2,0	2,1	2,1	2,4	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,6	—	1,9	2,3	2,4	2,2	—
Enplegua	1,5	1,4	1,5	1,5	1,4	1,4	1,4

2024ko datuak aurrerapena dira eta 2025ekoak behin-behineko datuak dira.

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Abendua

2025											
Urtar.	Otsa.	Mart.	Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Iraila.	Urria	Azaroa	Abend.
99,4	95,8	94,3	93,5	95,1	99,3	103,0	102,7	103,1	103,8	107,6	104,2

X<50
Atzeraldia

50<X<100
Hazkunde leuna

X>100
Hazkunde bizia

Euskal ekonomiaren termometroa 104,2ko balioan kokatu zen 2025eko abenduan, hazkunde biziko eremuan mantenduz eta urtea dinamika positiboarekin itxiz. Esportazio merkatuen portaera ahulak tratatzen jarraitzen du barne eskariak ia eskusiboki bultzatuta aurrera egiten duen jardura. Inbertsioak nabarmen egin du gora, eta kontsumo pribatuaren hazkundeak, berriz, eutsi egin dio azken hilabeteetako pultsuari, enpleguaren hazkunde-ari esker. Sektoreka, eraikuntzak dinamismo handia erakusten jarraitzen du, eta zerbitzuen sektoreak euskal hazkunde ekonomikoaren funtsezko zutabeetako bat izaten jarraitzen du, industria ia geldirik dagoen bitartean.



ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

ABENDUKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2025	2026				2026	2027
	IV		I	II	III	IV		
BPG	2,2	2,2	2,0	2,0	1,9	1,9	1,9	1,6
Barneko azken kontsumoa	2,5	2,5	2,3	2,0	2,0	1,8	2,0	1,7
Familien kontsumoa	2,5	2,7	2,4	2,0	2,0	1,9	2,1	1,7
Administrazioaren kontsumoa	2,3	1,6	1,9	2,0	2,0	1,7	1,9	1,6
Kapital eraketa gordina	4,4	3,8	3,9	3,4	2,4	2,9	3,1	2,7
Barne eskariaren ekarpena	3,0	2,8	2,7	2,4	2,1	2,1	2,3	1,9
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,6	-0,6	-0,6	-0,4	-0,3	-0,3	-0,4	-0,3
Lehen arloa	-1,1	-0,6	-3,5	1,7	-0,9	4,1	0,4	2,6
Industria	0,6	0,3	0,8	0,9	1,2	1,2	1,0	1,5
Eraikuntza	4,8	3,6	4,3	3,2	1,6	1,9	2,7	1,7
Zerbitzuak	2,8	2,8	2,6	2,2	2,0	1,9	2,2	1,6
Balio erantsi gordina	2,3	2,2	2,2	1,9	1,8	1,8	1,9	1,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	2,2	0,8	2,0	2,1	2,2	1,8	1,7
Lanaldi osoko lanpostuak	1,2	1,4	1,2	1,1	1,0	0,9	1,1	0,8
Landunak (BJA)	1,1	1,1	0,8	0,3	1,0	1,0	0,8	0,9
Langabezia tasa	6,7	6,6	6,9	6,5	6,2	6,2	6,4	6,0

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026	2027		2025	2026	2027
BBVA	2,4	2,2	2,3	Hispalink	2,4	2,0	1,8
Confebask	2,2	2,1	—	Eusko Jaurlaritza	2,3	1,9	1,6
Ceprede	2,2	2,0	—	Caixabank	2,5	1,9	—
Euskal Ganbarak	2,3	2,0	—	Laboral kutxa	2,2	1,8	—

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2024		2025		
			IV	I	II	III	IV
BPG	3,5	2,8	3,7	3,0	2,8	2,7	2,6
Kontsumo pribatua	3,0	3,4	3,8	3,7	3,4	3,2	3,3
Kontsumo publikoa	2,9	1,8	2,4	1,9	1,9	1,6	1,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,6	6,3	5,1	4,8	5,3	8,2	6,8
- Aktibo finko materialak	3,3	6,5	5,7	4,8	5,5	8,7	7,0
- Eraikuntzan	4,0	5,2	5,7	2,6	3,3	7,3	7,6
- Ekipamendu ondasunetan	1,9	9,0	5,6	9,1	9,8	11,7	5,8
- Landutako baliabide biologikoak	6,0	6,8	9,2	8,0	7,0	6,1	6,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	4,6	5,4	2,6	4,8	4,3	6,1	6,2
Nazio eskaria (ekarpena)	3,3	3,6	4,0	3,5	3,5	3,8	3,6
Esportazioak	3,2	3,4	3,2	3,2	3,9	2,8	3,5
Inportazioak	2,9	6,3	4,4	5,1	6,5	6,7	6,9

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
BBVA Research	3,0	2,3	Repsol	2,9	2,2
EthiFinance Ratings	3,0	2,3	Instituto Estudios Económicos	2,9	2,1
AFI	2,9	2,2	Intermoney	2,9	2,2
Caixabank Research	2,9	2,1	CEPREDE-UAM	2,8	2,2
Cámara de Comercio de España	2,9	1,9	Santander	2,8	2,2
CEEM-URJC	2,9	2,1	Universidad Loyola Andalucía	2,8	2,4
CEOE	2,9	2,3	Consenso (batez bestea)	2,9	2,2
Equipo Económico (Ee)	2,9	2,3	AIReF (urtarrila 2026)	2,9	2,4
Funcas	2,9	1,9	EB (azaroa 2025)	2,9	2,3
ICAE-UCM	2,9	2,3	NDF (urtarrila 2026)	2,9	2,3
Mapfre Economics	2,9	1,9	Gobernua (azaroa 2025)	2,9	2,2
Metyis	2,9	1,9	Espain. Bankua (abendua 2025)	2,9	2,2
Oxford Economics	2,9	2,3	ELGA (azaroa 2025)	2,9	2,2

Iturria: Funcas.



ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2024		2025		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,8	—	2,4	2,0	2,1	2,3	—
Txina	—	5,0	5,4	5,4	5,2	4,8	4,5
Japonia	0,1	—	0,7	1,6	1,9	0,7	—
Kanada	2,0	1,6	3,1	2,9	1,6	1,4	0,6
Europar Batasuna	1,1	1,6	1,6	1,7	1,7	1,6	1,4
Eurogunea	0,9	1,5	1,3	1,6	1,5	1,4	1,3
Alemania	-0,5	0,2	-0,2	0,3	0,4	0,3	0,4
Frantzia	1,1	0,9	0,7	0,7	0,8	0,9	1,1
Erresuma Batua	1,1	—	1,9	1,8	1,4	1,3	—
Italia	0,7	0,7	0,5	0,7	0,5	0,6	0,8
Herbehereak	1,1	1,9	2,2	2,5	1,7	1,6	1,7

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2026ko URTARRILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2026	2027	2026	2027	2026	2027
AEB	2,0	2,0	2,6	2,4	4,5	4,4
Japonia	0,8	1,0	1,8	1,9	2,5	2,4
Kanada	1,3	1,9	2,2	2,1	6,6	6,2
Europar Batasuna	1,4	1,6	1,9	2,0	—	—
Eurogunea	1,1	1,4	1,8	1,9	6,3	6,2
Alemania	1,1	1,5	2,0	2,0	6,2	5,9
Frantzia	1,0	1,1	1,2	1,6	7,7	7,6
Erresuma Batua	1,0	1,3	2,4	2,2	5,2	5,1
Italia	0,7	0,8	1,4	1,8	6,1	6,0
Espainia	2,2	1,9	2,2	2,1	10,0	9,7
Herbehereak	1,2	1,4	2,3	2,2	—	—

Iturria: Consensus Forecast.